



HERRI ADMINISTRAZIOETAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO ZUZENDARITZAREN TXOSTENA

Espedientea: DNCG_LEY_2614/18_05

Euskal Herriko Klima Aldaketaren Legearen Aurreproiektuaren berri jaso dugu bide telematikotik Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan ekainaren 12an Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzak bidalita, derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuaren 14.1) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Abuztuaren 31ko 128/2007 Dekretuak xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezarri zuen: *“euskararen erabileraren normalizazioaren arloan eskumena duenak araua prestatzeko hasierako fasean esku hartu ahal izan dezan”*. Azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak, aurrekoa indargabetuz, bere 4. artikuluan eskaera egiteko epea ezartzen du:

“Proiektua izapidetzen ari den sailak egingo du aholkularitza txostena emateko eskaria, hori taxutzeko espedientea behin behinekoz onartzeko agindua publiko egin ondoren, eta instrukzioa egin duen saileko zerbitzu juridikoak dagokion txosten juridikoa eman ostean”

Izapidetutako dokumentuetan jasotzen denez, aztertzea eskatzen zaigun xedapenaren alde aurreko onarpena maiatzaren 31koa da. Bete da beraz aipatu Dekretuak xede honekin arautua.

Bestalde, aipatzekoa da hasieratik zintzilikatu direla Lege Aurreproiektuaren euskarazko zein gaztelaniazko zatiak; beraz, bete dela abenduaren 22ko 8/2003 Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 7. artikulua. Artikulu hori jarraiki, alde aurreko onarpenak legearen testu osoari buruzkoa izan behar du; euskarazko zein gaztelaniazko zatiak barne.

Xedapen hori betearaztera begirakoa da Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakia, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituena:

“betiere dagozkion negoziazio, audientzia eta kontsultak egiteko izapideak egin baino lehenago; izapide horiek guztiak ele bitan dagoen testuarekin egin beharko dira. Ondorengo instrukzio faseetan ere, derrigorrezko txostenak eta irizpenak eskatzeko orduan, bi hizkuntza ofizialetan idatzitako testua bidaliko da.”

Ildo beretik, izapidetzearen baitan jasotako txostenek testuaren zati biak hartu beharko dituzte kontuan eta, urratsez urrats, egokitzapenak bietan egin beharko dira. Tramitazioaren baitan egiten diren moldaketak testuaren zati bakarrean burutzea (usadioak ikusita, gaztelaniazkoan oro har) eta amaieran horren itzulpena egitea lege urraketa litzateke; horrelakoetan, prozeduran erabilitako hasierako testuaren erdia alboratuz (euskarazko zatia, adibidez), izapidetzearen ibilbidea jarraitu ez duen testu berri bat onartzen delako.

Xedapenaren edukietan hizkuntza aipamenik aurkitzen ez dugun arren, ulertzen dugu 10. artikuluan jasotzen diren herritarrei zuzendutako “*Sentsibilizazio, informazio eta partaidetza publikoa*”n herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko direla; halaber, 23. eta 41. artikuluetan jasotzen den “*Klima Aldaketarako Ekinbideen Euskal Erregistroa*”n ere EAEko hizkuntza araudiak erregistroetarako ezarritakoa beteko dela.

b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

Klima aldaketa Ingurumena eta Lurralde Politikaren zeharkako alderdien artean dago; horietako beste batzuk dira: genero ikuspegia, osasuna eta euskara.

Lege Aurreproiektuaren testuan, klima aldaketa gai nagusia izanik, genero ikuspegia eta osasunari buruzko aurreikuspenak aurkitu ditzakegu, 14. artikuluan besteak beste; ez ordea euskarari buruzko aipamenik.

Badago pentsatzea klima aldaketari aurre egiteko neurriak nekez eduki dezaketela eraginik euskararen egoeran. Baina, xedapenaren edukiei tentuz erreparatzen badiegu ikus dezakegu hirigintzari lotutako neurriak ere tartean daudela.

Hala nola, 27. artikulua “*Eraikingintza, zaharberritzea eta hiriberritzea*”ri buruzkoa da eta 31.a “*Lurralde antolamendua eta hirigintza*”ri buruzkoa.

31. eta 32. artikuluetan irakur ditzakegu: “*Hiri dentsitatea handitzea*”, “*Biztanleria kontzentratzea erabileretan mistoak diren, joan-etorriak minimizatzen dituzten eta garraio publikoaren sare eraginkor bat duten eremu trinkoetan*” edota “*aldiri inguruneetan, hiri ingurunearen jarraitutasuna eraikitzeke landa ingurunerantz*”.

Honela dio, besteak beste, Lurralde Antolamendurako Gidalerroen berrikuspenerako dokumentuak:

Euskararen arloan proposatzen diren lurralde-gidalerroak:

*1. EAEren errealitate soziolinguistikoa lurralde- eta hirigintza-antolamendurako tresnetan gehitzea, **hizkuntza-ikuspegiari zeregin integratzailea emanda.***

Horiek horrela, komenigarria litzateke **hizkuntza eragina kontuan hartzea eta euskararen sustapena ere txertatzea**, 14. artikuluan, “*Klima aldaketako ekintza planen helburu*”en artean eta “*Ekonomia Zirkularraren Estrategiaren*” baitan “*bost urtean behin berrituko diren ekintza planak*” egiterakoan.

Bestalde, Aurreproiektuaren 6. artikulua. *Klima Aldaketaren Sailarteko Batzordeari* buruzkoa da eta 7. artikulua *Ingurumenaren Aholku Batzardea* eta klima aldaketaren arloan honek sortuko dituen espezializatutako batzardeei buruzkoa.

Kasu batean zein bestean horien osaera eta funtzionamendua ondorengo araudien bidez garatuko direla jasotzen da.

Erakunde horietako kideek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egon daitekeen dokumentazioa kudeatu beharko dutenez, zein gainontzeko kideen hizkuntza eskubideak modu eraginkorrean bermatzeko eta administrazioak jarraitu beharreko eraginkortasun eta efizientzia irizpideei jarraituz, komenigarria ikusten dugu jarraian proposatzen dugun testua edo antzekoa txertatzea araudi horietan:

Batzordeko kideak izendatzerakoan kontuan hartuko da Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan nahikoa gaitasun edukitzea eta gizonen eta emakumeen arteko oreka bilatuko da. Batzordeko kideek euren jardunean hizkuntza ofizialetako edozein erabili ahal izango dute. Euskararen normalizazioa helburu Batzordeak horrela erabakitzen bada bilera deialdiak, gai zerrendak, aktak, ziurtagiriak eta testu idatziak oro har, euskaraz bideratu ahalko dira. Bestelakoa erabakitzen bada Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko da.

Proposatzen dugun testuan hizkuntzaren ikuspegia eta genero berdintasunarena elkartuta daude. Biak zeharkako gaiak izanik formula bera erabili izan ohi dugu beste hainbat kasutan.

Azkenik, txosten honen esparrutik kanpoko gaia izan arren, akatsak izan daitezkeenak antzeman ditugu euskarazko testuan:

- Zioen azalpenetako II. multzoaren hasieran **“Euskadi”** hitzak ergatiboa beharko luke (**“Euskadik”**);
- Zioen azalpenetako III. multzoaren lehen lerroan **“1 aldi baterako xedapen”** dio (**“aldi baterako xedapen 1”**);
- Zalantzak sortzen digu testuaren hainbat lekutan **“suspertu”** hitza erabiltzeak sustatu zentzuan;
- 13.5 artikuluan honela dio:
“(…)nazioartean zehaztu eta onartutako prozedura eta **metodologietarik** jarraituko dira”
- 29. 2 artikuluan honela dio:
“Azpiegitura kritikoak kudeatzen **dituten** erakundeek”
- 29.2.b) artikuluan honela dio:
“azpiegitura horiek **erabiltzean direnean**(…)”
- 41.2 artikuluan honela dio:
“Erregistroan izena ematea doakoa **izango da**, eta inskribatutako erakundeei onura administratiboak **ekarri dizkie**, arautegi bidez garatuko **direnak**(…)”

Laguntze aldera ohartarazten dizuegu, zuzendu ahal dezazuen egokia baderitzozue.

Adeitasunez,

Joseba Lozano Santos
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria